



Herria, gaitz guztietatik salbu

Euskal Inauteriak mozorro festen lehen asteburua ekarri dute Lasarte-Oriara. Tradizioa izan da protagonista. / 8-9

TXINTXARRI

Epailearen erabakiari helegitea

Ana Urchueguia alkate ohiaren aurkako kereila izan du hizpide udal korporazioak, besteak beste; ezohiko pleno saioa egin du / 2



Gidabaimena euskaraz atera dutenen artean, bederatzi saritu / 3

Mendebaldeko Sahararen aldeko ekintza ugari datorren astean / 4

Babyauto Zarautz errugbi taldeak galdu egin du Ohorezko B mailako derbia / 11

Zorione Mendezek marraz marra sortutako lanen erakusketa, Jalgin / 5

Herriko areto futbol talde federatuen jarduna: garaipen bat eta hiru berdinketa / 10



FELIX BEITIA

ZUBIETA TABERNA berria!

Hipodromo etorbidea, 12 Lasarte-Oria

Erabaki judiziala eta herriaren iritzia aztergai

Otsail hasieran Ana Urchueguiaren aurkako auzia behin-behinean artxibatzea erabakitzen duen epailearen autoa argitaratu da. Otsailaren 14an, helegitea jartzea erabaki du Udalbatzarrek. Edukiontziei buruzko herri-galdeketa baldintzak ere landu dira saioan

Txintxarri

Estitxu Alkorta EAJko kideak jakinarazi zuen Ana Urchueguiaren aurkako auzia behin-behinean artxibatzea erabaki duela epaileak, otsailaren 14an egindako ezohiko udalbatzarrean. Alderdi jeltzaleko zinegotziak Udaletxera autoa iritsi zenetik emandako pausoak azaldu eta urgentziako udalbatzarren zergatia argitara eman zuen: "Autoari helegitea jartzeko epeak oso motzak dira". Auziarekin jarraitzeko erabakia EAJ Eusko Alderdi Jeltzalearen esku soilik ez dagoenez, udalbatzarrean eraman zuten gaia urgentziaz. Abokatuaren iritzia eskutan, batzarrak helegitea jartzeko baimena eman zuen, EAJ, EH Bildu eta Elkarrekin Lasarte-Oria Puede alderdien aldeko bozkari esker. PSE-EE abstenitu egin zen.

Ustelkeria politikoa eta horren aurkako borroka EH Bilduren lehentasunetako bat dela adierazi zuen alderdiko bozeramaile Jon Martinek. Horregatik, Ana Urchueguiaren jardunak sortzen dituen kezkak eta galderek erantzuna izan dezaten helegitearen alde egin zuen EH Bilduk.

Udal talde sozialistak ere bere bozka azaldu zuen. PSE-EEren iritziz, epailearen autoak Ana Urchueguiaren aurkako prozesua bertan behera uzteko nahiko arrazoi eskaintzen ditu eta ez da frogatu Urchueguiak inongo deliturik egin zuenik. "Egia ezagutzetik edo justizia egitetik haratago dauden jokaerek, haren aurkako jazarpena etetea zailtzen dute", adierazi zuen Lourdes Acevedo bozeramaileak. Alderdi sozialistak bide judiziala inoiz oztopatu ez duela gogorarazi zuen, "gutziz argitu nahi dugulako". Kereilaren behin betiko erabakia argitaratzean beste alderdiek haien okerrak onartzeko gai izatea ere espero dute.

Lurpeko zaborrontzietan buruzko herri-kontsultaren baldintzek ere zeresana eman zuten. PSE-EE eta ELOP alderdiek alde egin zuten.



Ezohiko udalbatzarren irudia, PSE-EEko bozeramaileak hizketan dagoela. TXINTXARRI

EH Bilduk eta EAJk abstentziora jo zuten, kontsulta egitea beharrezkoa ez dela egotzita.

Edukiontzien herri-galdeketa

EAJren aburuz, zaborrontzien auziak erabaki politikoa izan behar du. "Informe teknikoek gure ustez argi eta garbi uzten dute, itxi beharko liratekeela edo bestela ez litzatekeela egokiena lurazpiko edukiontzietan jarraitzea", adierazi zuen alderdi jeltzaleko bozeramaile Jon Antxordokik. Herri-galdeketa alde ere agertu da, "baina informe teknikoak izanik, ez dugu uste gai honetan zentzu handirik duenik".

EH Bilduko Uxue Loinazek ere hartu zuen hitza. Koalizio abertzalearen ustez, parte-hartze prozesua "hasieratik ez da ongi bideratu". EAJrekin bat dator EH Bildu, lur azpiko zaborrontzien erabakia tekniko dela adieraziz: "Txosten tekniko bat dago; ez ditu ongi baloratzen lurazpiko zaborrontziak." Beraz, galdera "antzua" eta galdeketa "azalekoa" dela iruditzen zaie EH Bilduko kideei. Are gehiago, galdeketa herriarrek zein sistema nahi duten erabaki beharko luketeela uste dute, arazoa birziklapen tasan baitago. Beraz, kontsultak "gutxienez %60ko birziklapen tasa izatea bermatuko duen sistema bat ezartzeko" izan beharko luke.

Lourdes Acevedo PSE-EEko bozeramaileak EAJ eta EH Bilduren jarrera kritikatu zuen. "Galdeketa noiz egin nahi diren birplanteatzen hasi naitz", adierazi zuen. Lur azpiko edukiontziena "arazo ekonomiko larria" zela onartu eta San Markos Mankomunitateko edukiontzien irisgarritasun arazoak dituztela gogoratu zuen. Eta erabakia herriarrek hartu beharrezkoa dela defendatu zuen alderdi sozialistak. "Era honetara, herriarrek nahi dutena egingo da".

Alkatetzaren proposamenak

Beste hiru gai ere jarri zituzten mahai gainean. Iñigo Zabaleta zinegotziaren kargu hartzearen ostanen, udal talde sozialistak bere osakeraren eta Informazio Batzordeen ordezkarien izendapenaren berri eman zuen.

Alkatetzaren bi proposamen ere aztertu ziren. Lehenengoan, udalbatzarren bilkura eguna aldatzea erabaki dute, aho batez. Martxotik aurrera, ohiko plenoak hilabeteko bigarren ostegunetan izango dira, 18:30etik aurrera.

Udal talde sozialistaren arduraldien moldaketa ere onartu zen, PSE-EEren bozkekin. Gainontzeko alderdiak abstenitu ziren. Hemendik aurrera, alderdi sozialistak alkatearen arduraldia, hiru arduraldi eskusibo eta bi partzial izango ditu.



Egungo zein aurreko legealdietako ordezkariak elkartu dira EH Bilduren bulegoan. TXINTXARRI

EH Bildu: "Egia osoa nahi dugu Somoto auziari buruz"

Bi helegite aurkeztea babestu du koalizio abertzaleak: udalaren izenean bat, eta Pablo Barrio alkate ohiarenean bestea

Txintxarri

"Kereila behin-behinean artxibatzea ez du esan nahi epaileak zehaztu duenik Ana Urchueguiaren kudeaketa zuzena ala okerra izan zen". EH Bilduren adierazpenak dira, asteon egindako agerraldikoak. Gaurkotasunezko gai bilakatu da berriro Somoto ustezko irregulartasunen aferra, epaileak erabaki duelako kasua artxibatzea, "informazio faltagatik". Koalizio abertzaleak azaldu du 2015-2019 legealdian hiru erreguzko mandatu bidali direla Nikaraguara, bertako dokumentazio guztia Euskal Herrira bidal zezaten, baina hiru aldietan ez dela inolako erantzun edo informaziorik jaso.

Egoera horren aurrean, EH Bilduk adierazi du "egia osoa" nahi duela eta bere eskuetan dagoen guztia egingo duela Somoto ustezko irregulartasunen auzia argitzeko. Epailearen erabakiari bi helegite aurkeztea

babestu du: udalaren izenean bat, EAJ eta ELOP alderdiekin batera alde bozkatu baitu, eta Pablo Barrio alkate ohiaren izenean bestea, akusazio partikular gisa. "Ikerketa azkeneraino eraman behar da; larria da herritarren baliabide publikoak oker kudeatu ote diren jakin gabe segitzea horrenbeste denbora eta gero".

Kereilaren jatorria

EH Bilduk azaldu duenez, 2011-2015 legealdian aurkeztu zuen kereila Ana Urchuegui alkate ohiaren aurka, Alkatetza koalizio abertzaleak kudeatzen zuenean, EAJ eta Lasarte-Oriako Herriar Plataformaren babesarekin. "Helburua zen argitzea egindako kudeaketa ustezko irregulartasunaren korporazioko diruarena". Epaileak tramitatu onartu zuen salaketa, eta ikerketa fasean dago orduan.

Udal Eskola Kontseilua otsailaren 26an bilduko da

Datorren asteko asteazkenean batzartuko da Udal Eskola Kontseilua, hilak 26. Hainbat gai jorratuko ditu: 2019-2020 ikasturteko matrikulazio datuak, eskola materiala erosteko diru-laguntza lerroak, ikastetxeetan jarduketak eta aurrekontu parte-hartzaileak. Organo horrek sustatzen ditu parte hartzea, kontsulta eta aholkularitza,

unibertsitatez kanpoko irakaskuntza programatu, jarraitu eta kontrolatzen duten gizarte-sektoreena.

Kide hauek joango dira batzar horretara: alkatea, Hezkuntza zinegotzia, udal korporazioko alderdi politikoko bakoitzeko zinegotzi bat, ikastetxe bakoitzeko zuzendaria edo irakasle delegatu bat, ikastetxe bakoitzeko guraso elkarteetako ordezkari bat eta idazkaria. Azken horrek ez du bozkatzeko eskubiderik izango, baina bai hitz egiteko.

Sari ugari gidabaimena euskaraz ateratzeagatik

Lasarte-Oriako Maddi Sukunza izan da bederatzigarritako bat. 400 euro arteko saria jaso du, gidabaimenaren atal teorikoaren kostua erreperatuzko. Aurtengo kanpaina ere martxan dute, eta maiatzetik aurrera, udarara begira, indartu egingo dutela iragarri dute

Txintxarri

Hamar urte dira egitasmoa martxan jarri zutela, eta iaiz, 124 lagunek atera zuten gidabaimena euskaraz Buruntzaldean. Horietatik bederatzik jaso dute saria. Ostiralean egin zuten zozketa, 2019. urtean gidabaimena euskaraz atera duten lagunen artean. Hermaniko Biteri kultur etxean izan da ekitaldia, eta bertan bildu dira Buruntzaldeako autoeskoletako eta udaletako ordezkariak.

Gidabaimenaren atal teorikoa gainditu duten Buruntzaldeako 124 herritarretatik bederatzik jaso dute saria. Horiek, alde teorikoan gastatu duten dirua berreskuratu ahal izan dute, gehienez 400 euroko kopuruarekin.

Egitasmo horren bitartez, gazteak gidabaimena euskaraz ateratzera animatu nahi dituzte. Bide horretan, urtez urteko kopurua gorantz doala jakinarazi dute. 2018. urtean, esaterako, 110 lagunek gainditu zuten gidabaimena euskaraz (iaz baino 14 pertsona gutxiagok) eta 2017. urtean, berriz, 103k (iaz baino 21 herritar gutxiagok).

Sariketan parte hartzeko zenbait baldintza betetzea ezinbestekoa da. Alde batetik, Buruntzaldeako herriren batean erroldatuta egon behar da, eta



Autoeskoletako eta udaletako ordezkariak bildu dira zozketa ekitaldian. TXINTXARRI

bigarrenik, gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz gainditzea 2019. urteko urtarrilaren 1etik abenduaren 31 bitartean; noski, Buruntzaldeako autoeskolaren batean.

Mugica autoeskolako Maddi Sukunza Gomez izan da Lasarte-Oriako saritua.

Aurten ere egitasmoa martxan

Abiatu da aurtengo egitasmoa ere, eta maiatzean indartu egingo da. Izan ere, 18 urte betetzen dituzten herritarrei gutun bat

bidaliko baitiete udalek, gidabaimenak euskaraz ateratzeak dituen abantailen berri emanaz. Gazte askok udako oporraldia aprobetxatzen dute gidabaimena ateratzeko: "Ikasketak euskaraz egin dituzten gazteak dira, eta ezinbestekoa da helduarorako urrats garrantzitsu eta erakargarri hori euskaraz eman ahal izatea". Egitasmoa martxan jarri zutenetik atal teorikoa euskaraz ateratzen dutenen kopuruak gora egin du, urtez urte.



TXINTXARRI

Emakumeei ahotsa emanaz

Euriari aurre eginez, hainbat herritar bildu ziren udaletxe berriko arkupeetan Pentsiodunen eta Erretiratuen Koordinakundeak astero egiten duen saiora. Aste honetan emakumeak izan dituzte hizpide, eurak baitira pentsio baxuenak jaso eta txirotasun egoera larrienean dagoen taldea. Pentsionistek ez dute ulertzen bere burua aurrerakoi eta feministatzat duen gobernua emakume pentsionistak aurrekoek mantendu zituzten egoera berean uztea. Egoera konpontzeko enurri ugari har daitezke mugimendu pentsiodunen kideen ustetan, baina berehalakoa ekimena, txirotasun atalasearen azpitik eta gizarte bazterkerian bizi diren haien beharrak asetzea izango litzatekeela argi dute.



TXINTXARRI

Txokolatada solidarioa Okendon

Haurren Minbiziaren Nazioarteko eguna da otsailaren 15a eta haren ikerkuntzaren alde hirugarren txokolate-jate solidarioa antolatu zuten larunbatean. Lasarte-Oriako boluntario talde batek bigarren bat egin du jarduerarekin postu bat jarrita Okendo plazan, Semblante Andaluz elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak lagunduta.

GIDA KOMERTZIALA

www.txintxarri.eus/gida

Denda, taberna, jatetxe edo enpresa bat duzu?

- Gida osatua, eguneratua eta erabilgarriena.
- Lasarte-Oriako denda eta enpresen telefono gida.
- Sarean, mugikorretan, tabletetan...

txintxarri

GIDAN PARTE HARTZEKO:

publizitatea@ttakun.eus | 943 37 14 48 (106) | 646 82 44 66 | Geltoki kalea, 4



NOAOA
BIDAIAK

ESLOVENIA
& ISTRIA



AZKEN
PLAZAK

ZETAREN
BIDEA
(Uzbekistan)

TALDE BIDAIAK

T.: 943 373 613
info@noaoa.eus

Mendebaldeko Saharari elkartasuna adierazteko

Egitarau zabala prestatu du Euskal Herriko Lagunak Mendebaldeko Saharakoekin Bat elkarteak, herrialde horri elkartasuna adierazteko: manifestazioa, bazkari sahararra eta argazki erakusketa. Elkarteak herritarrek animatu ditu ekintzetan parte hartzera

Txintxarri

Otsailaren 27an, ostegunarekin, 44 urte beteko dira SEAD Saharar Errepublika Arabiar Demokratikoa osatu zenetik. Urtemuga berezi hori gogoratu eta Mendebaldeko Saharako herriari elkartasuna adierazte aldera, manifestaziora deitu du EHLMSB Euskal Herriko Lagunak Mendebaldeko Sahararekin Bat elkarteak, egun horretarako. Okendo plazan elkartuko dira, arratsaldeko zazpitan.

Hori da elkarte horrek antolatutako ekintzetako bat, Mendebaldeko Saharari elkartasuna adierazteko. Baina ez bakarria: bazkari sahararra eta argazki erakusketa bat ere egingo ditu. Antonio Mercero gunean aurkeztu dute egitaraua, zenbait alderdi politikotako (PSE-EE eta EH Bildu) ordezkariarekin batera. Elkarteak kide Tomax Arrutik eskerrak eman dizkie korporazioko alderdi guztiei, otsailaren 10eko ohiko udalbatzarrerera eraman zuten mozioa aho batez onartzeagatik.

Otsailaren 29an, larunbatearekin, saharar gastronomiako hainbat plater dastatu ahalgo dituzte herritarrek, Furia Beltza tabernan. Bertan jarri dituzte salgai tiketak; hamabost euro balio dute. Menua honakoa izango



Antonio Mercero aretoan egin dute aurkezpen prentsaurrekoa. TXINTXARRI

da: harira, kouskousa barazkiekin, arkumea saharar erara eta postrea-kafea eta edaria barne-. Martxoaren 2tik 8ra argazki erakusketa bat jarriko dute Jalgi Kafe Antzokian: *Sahara emakume izenarekin.*

'Oporrak Bakean' egitasmoa

EHLMSB elkarteak aurkezpen prentsaurrekoa baliatu du dei bat egiteko herritarrei: galdegin die *Oporrak Bakean* egitasmoan parte hartzea. Egitasmo hori sortu zuen Fronte Polisarioaren Euskadiko Ordezkaritzak; aukera

ematen die kanpaleku horietan bizi diren zortzi eta hamabi urte bitarteko haurrei udako oporraldia pasatzera etortzeko. Hainbat elkarte, eragile, udal eta familiak parte hartzen dute.

Lasarte-Oriako Udalak adierazi du zortzi familia lasarteoriatar behar dituela, haur horiek hartu eta uztaila eta abuztua elkarrekin pasatzeko. Interesa duten familiek gizarte zerbitzuekin jarri behar dute harremanetan. 650 488 108 telefonora deitu dezakete, edo, bestela, gizartez@lasarte-oria.org helbide elektronikora idatzi.



Herriko piano jotzaileak Andoingo lehiaketako sariak eskuetan dituztela. U.M.E.

Andoingo piano lehiaketan emaitza onak lortuta, etxera

15. Andoingo piano jaialdian parte hartu dute dozena bat piano jotzailek asteburuan. Dominekin itzuli dira

Txintxarri

Herriko hamabi parte hartzaile izan dira Andoingo Bastero kultur gunean egin den XV. piano jaialdian, eta horietatik hamarrek dominak kolkoratu dituzte. Larunbatean eta igandean ospatu da jaialdia, eta estilo ezberdinetako obra ugari taularatu dituzte gazteek.

Lasarte-Oriako piano jotzaile guztiek bakarlari gisa parte hartu duten arren, hiru modalitatean aritu dira parte-hartzaile guztiak; bakarlari gisa, lau eskutara eta seira. Aurten, gainera, Ludwig van Beethovenen jaiotzaren 250. urteurrena gogoratzeko eta omentzeko, konpositore alemaniarraren sari berezia ere antolatu dute.

Larunbatean eta igandean, hamabi piano jotzaile

lasarteoriatar izan dira lehiaketan. A kategorian (11 urte artekoak) Naroa Ugarteburu, Maider Urdampilleta, Ane Gallego, Izaro Martin herritarrek parte hartu dute. B kategorian (14 urtera artekoak), berriz, Alazne Armendariz, Dunixe Belamendia, Avril Salas, Aiora Toquero, Eneritz Diaz de Gereñu, Nahia Goenaga eta Gari Iraola aritu dira. Azkenik, C kategorian (14 urtekoak) Unax Goenaga lehiatu da.

Oso lan ona egin dute, eta horren erakusgarri dira kolkoratutako dominak. Guztira, hamar ekarri dituzte Lasarte-Oriara: urrezko bi, zilarrezko zazpi eta brontzezko bat. Ziur lortutako sari horiek lanean jarraitzeko indarra emango diela musikari gazteei.

Yon Pavonen koktelak nola prestatu ikasi dute Txorien

EiTBko telebista saioan izan da alkoholdu edariak prestatzen. Gaur eguerdian botako dute; 15:00etan

Txintxarri

Sasoiko dago Yon Pavon herritarra. Maite du bere lana, eta antzematen da hori; emaitza ederrak lortzen ari baita. EiTBko Txoriene saioan bi koktel prestatu ditu lasarteoriatarrek:

bermuta eta Gintonik bat. Edariak prestatu bitartean, bere zerbitzari ibilbidearen berri eman du, eta horrekin batera, Erromatik Santiagora egin duen hiru hilabeteko bidez ere jardun da eta bizitako esperientzia

horren berri eman dio Zigor Iturrieta telebista saioko aurkezleari.

Gazte talentu onenen artean

Diario Vascok antolatzen duen gazte talentuen lehiaketan, koktelaria modalitatean, finalista da Pavon. Herri epaimahai batek aukeratua izan da, hiru onenen artean sailkatu da finalerako. Martxoaren 25ean jakinaraziko dute hiru horien artean garailea, Donostiako Maria Cristina hotelean.



Gaur eguerdian botako dute Yon Pavonekin grabatutako saioa. YON PAVON

Gaueko isiltasunean, marraz marra sortuak


Zorione Mendez sortzailearen erakusketa izango da ikusgai datorren astelehenetik aurrera Jalgi Kafe Antzokian. Dozena bat pieza jarriko ditu ikusgai zein salgai, eta martxoaren 1era arte izango da horiek ikusi edota erosteko aukera

Maddi Zaldua

Marrak izen artistikoarekin sinatzen ditu Zorione Mendez (Orio, 1988) sortzaileak bere lanak. Horrela osatzen baitutu bere lanak; marraz marra. Arte ederrak ikasi eta gero, urte batzuez beste hainbat eginkizunetan ibili ostean, duela pare bat urtetatik ari da, etenik gabe, marren bitartez sortzen.

Gizakiak marrazten ditu gehienetan, baina ez edozein gizakia; androginoak, generorik gabekoak hain zuen. Horrekin batera, bere lanei begiratu, ikusi daitezke lau begiko edota hiru belarriko gizakiak direla: "Betiko rola hautsi nahi ditut, betikotasun horretatik aldentu".

Batzuetan erretratu edo irudiak hartzen ditu eredu, eta horietatik abiatuta sortzen ditu bereak, baina ez beti; beste hainbatetan, berriz, berak asmatzen baititu ilustrazioak. Sortzen dituen lanak surrealismoaren eragina dutela azaldu duen arren, ez du bere burua estilo zehatz baten baitan kokatzen; baditu ordea, bere lanak surrealismoaren baitan garatutako zenbait sortzaile eredutzat: Louise Bourgeois eskultore frantsesa eta Hans Bellmer Poloniako autore eta argazkilaria, esaterako. Begiak marraztuz hasten ditu bere lanak,



Zorione Mendez 'Marrak' sortzailearen bi gizaki androginoaren ilustrazioa. TXINTXARRI

gorputz atal hori baitu gustuko: "Norbere arimaren isla dira". "Tristura, iluntasuna eta nostalgiaren adierazgarri" dira Mendezen ilustrazioetako begiak. Erabiltzen dituen koloreak ere badira horren erakusle. Zuria eta beltza baino gutxiago erabiltzen baititu gainerako koloreak: "Erosoago sentitzen naiz zuri-beltzean, kolore artean galdu egiten naiz". Lan prozesua "momentuaren arabera" dela azpimarratu du sortzaileak. "Batzuetan hasi eta buka egiten ditut ilustrazioak, besteetan ez naiz lehen emaitzarekin konformatzen".

Gaua da Mendezentzat lanak sortzeko eguneko unerik

kuttunena. "Gustuko musika jarri eta isiltasunaz baliatuz sortzen ditut nire lanak". Paperarekin ez ezik, oihalekin ere egiten du lan. Kotoizko kamisetak eta poltsak ere egiten ditu; gustuko ilustrazioa aukeratu eta enkarguz sortzen ditu jantzi eta osagarri horiek. Orain, gainera, bi dimentsiotako lana erabat baztertu gabe, hiru dimentsioak eutsi dio Mendezek; oihalen bidez egindako eskulturagintzan murgildu da.

Proiektu ezberdinekin ari da kolaborazioan, tartean lasarteoriatar batekin ere bai; Izan Inurriekin hain zuzen. Ilustrazio bat sortu du egitasmoarentzat, eta nezeserrak egingo dituzte horiekin.



TXINTXARRI

Txerrikiz betetako asteburua

Ama Guadalupe Extremadura Etxean txerria hiltzearen festa ospatu dute asteburuan. Animalia horren eratorriez betetako jaki ugari dastatu eta prestatu dituzte. Indarrez hasteko ogi-mamiak dastatu dituzte eta gero haragia zatitu dute kanpoko terrazan. Han izan dira Agustin Valdivia alkatea, Jesus Zaballos alkate ohia eta Jalguneko kideak, besteak beste.



LASARTE-ORIAKO ERNAI

Kale ekintza eta argazki masiboa

Lasarte-Oriako Ernaik kale ekintza egin du Okendo plazan, Zubietako erraustegiaren aurka protestatzeko, *Ustelen legea, errautsa eta kea* leloa margotu du lurrian. Horri lotuta, larunbat honetan argazki masibo bat ateratzeko deialdia luzatu dute: 13:00ean geratuko dira, Kale Nagusian, Ilargi taberna parean. Bestalde, GuraSOS elkarteak otsailaren 29ko Donostiako manifestaziora atxiki da. 17:00etan abiatuko da, Easo plazatik. Larreko Mahaia osatzen duten eragileek deitu dute. Horietako bat da GuraSOS.



Inauterietako

ARGAZKI LEHIAKETA

Atera itzazu argazki politikak
eta igo TXINTXARRI.eus-era!!

Otsailaren 27ra arte parte har dezakezue!

www.txintxarri.eus/lehiaketa

saria!



ERRIGORAKO SASKI eder bat
eskura dezakezu!


PLAZAN

Hau hotza!

Pelloziriren lagunak jantzi mordo bat jarriko du soinean, kalera ateratzeko. Zer da justuki, jantziko duena? Aukeratu dituen jantziak eta osagarriak biribildu itzazu, ondoko orrialdean ageri den gisan agertu dadin.

otsaileko Sudokua

Osa ezazu sudokua, OTSAIL hitza osatzen duten hizkiak (O, T, S, A, I eta L) ipiniz. Gogoratu, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.



itzala Zein da gure rock and roll zalearen itzal zuzena?



BAZAN ...



Hamaika

...Bai, arrazoi duzue. Eskolako bazkaria ez da beti gustukoena izaten. Alde ederrekoak izaten dira amatxiren krocketak! Baina ahaztu hori, eta bila itzazu bi irudi hauen artean dauden hamaika ezberdintasunak.




Badakizu zer dioen esaera zaharrak?

Otsaila bero, Negua gero

Graffiti

Imajina ezazu ondoko hau zure eskolako pareta dela. Egin ezazu graffiti lotsagabe samar bat. Edo nahiago baduzu, aldarrikatu ezazu zerbait, idatziz.



Gaitz guztietatik salbu da herria

Inauteria ekarri dute txantxoek

Euskal Inauteriek mozerro festen lehen asteburua ekarri dute Lasarte-Oriara. Denboran bidaia egin aurretik, tradizioa protagonista izan zen larunbat arratsaldean. Zubietatik dantzan etorri ziren xomorroak esku soinuaren doinuak jarraituta dantza alai eginez. Hipodromo etorbidean herritar ugari batu zitzaizkien, taldea nabarmen zabaldua. Elkarrekin, kaleak kolore, kanta eta jai giroz bete zituzten iluntzea arte. Eguzkia ezkutatzen hasi zenean, Okendo plazan batu ziren jaiaren pertsonaiak. Han, dantza eta kantu batzuen ondoren, itunaren unea heldu zen. Jaki, edari eta dukatuz betetako kutxa eman zieten xomorroi gaitz eta kalamitate guztiak uxatzeko. Iaz ere hala egin zuten, baina dena ez da ona izan azken hilabeteetan eta zorigaitz horien erantzuleak, Kaxkamalok, zigorra jaso zuen. Su garretan erraustu zuten. Arratsaldera bakarrik mugatu da aurtengo egitaraua, baina nahikoa izan da ate joka dauden inauteriak iragartzeko eta festarako giroa pizteko. Baita, noski, uztak, abereak eta herritarrak babesteko ere. Gutxienez, urtebetez.



Hipodromo etorbidean bat egin zuten zubiaren bi aldeetako txantxoek elkarrekin herrian barrena aritzeko. TXINTXARRI



Bidean botatako suzirik jakinarazi zieten lasarteoriatarrei desfilearen etorrera. TXINTXARRI



Kaxkamaloren erraustak itzali arte zaindu zituen mamoxarroak. Aurretik, desfileak iraun artean, bidaia...



Zubietatik irten ziren hogeit bat txantxoak karroza atzean joan ziren dantzan. TXINTXARRI



ean topatutako herritarrek zirikatatu zituen makilarekin. TXINTXARRI



Xumela koruko lagunek kantu ezagunetz eta umore onez bete zuten desfilea. TXINTXARRI



Bakarka, binaka edo taldean, nekatu arte dantza egin zuten txantxoek herriko erdiguneko kaleetan. TXINTXARRI



Euskal dantza sorkuntza taldeko gazteek eman zioten su xomorro bihurriari TXINTXARRI



Udal ordezkariak eta xomorroek berretsitako itunaren berri eman zuten plazan. TXINTXARRI



Partida ikusgarria jokatu du Eguzki 2KN taldeak: seina berdindu du Antigua Luberriren aurka, kiroldegian. TXINTXARRI

Gol zaparrada Maialen Chourraut kiroldegian

Partida ikusgarria jokatu du Eguzki 2KN taldeak Antigua Luberriren aurka: seina berdindu dute Gipuzkoako jubenil mailan lehiatzen diren bi taldeek. Garaipen garrantzitsua zakuratu du Eguzki Garoa Tabernak Tolosan, 0-5. Beste bi talde seniorrek puntu bana bildu dute

Txintxarri

Larunbat goizean Maialen Chourraut kiroldegira gerturatu ziren zaleek gogotik gozatu zuten. Eguzki 2KN eta Antigua Luberriren taldeetako atezainek, ordea, ez hainbeste: bakoitzak sei bider jaso behar izan zuen baloia sareetatik. Gol zaparrada Gipuzkoako jubenil mailako partida horretan. Puntu bat gehiago zakuratuta, ligako bosgarren postuan jarraitzen dute herritarrek. Golegileak hauek izan ziren: Ivan Mangas (2), Iago Gomez, Ibon Garcia, Ander Hazas eta Gaizka Irazusta.

Jubenil mailako beste taldeak, Eguzki Balerdi Harategiak, ezin izan du punturik urratu asteburuan. Kategoriako talde indartsuenetako batekin neurtu zituen indarrak, eta 8-2 galdu. Golak Telmo Galian eta Ibai Anguianok sartu zituzten. Azken partida galduta, sailkapeneko azken postuan da taldea, zortzi punturekin. Hurrengo sailkatuak, hala ere, gertu dauzka, eta

hurrengo neurketa irabaziz gero postuak igo ditzake.

Senior kategoriatan lehiari ari diren talde guztiek puntuatu dute. Eguzki Garoa Tabernak 0-5 irabazi du Tolosalaren aurka. Eguzki Aldaz Hertz Klinikak ere hatz mamiekin ukitu zuen garaipena, baina azkenean puntu batekin konformatu behar izan zuen: launa berdindu zuen Antiguokoren aurka. Gipuzkoako 1. mailako taldeen emaitzak izan dira horiek. 2. mailan ari den Eguzki ISU Leihoakek garaipen kutsuko berdinketa bat erdietsi du, Donipari liderraren kontra, 1-1. Sailkapenari so eginda, puntu bat gehiago pilotatzeak ez dakar aldaketa handirik, baina bai moralki: indarra emango die

SENIOR MAILAKO HIRU TALDEEK PUNTUATU DUTE JARDUNALDI HONETAN; 0-5 IRABAZI DU EGUZKI GAROAK

hurrengo jardunaldietarako, ziur. Talde federatu gehienek atsedean hartuko dute asteburu honetan, Inauteriak tarteko.

Lan erdiak, ia eginda

Zortzi jardunaldi jokatura, herriko areto futbol txapelketan lehiari ari diren taldeei partida bakarra falta zaie konpetizio horren ekuatorera iristeko. Sailkapenaren taula eskuetan hartuta, Patricio Cocktail Bar izan da erregularrena: hamasei puntu zakuratu ditu. Gertu daude Buenetxea eta Insausti tabernak, hamalauna punturekin. Txapeldunen faserako lau talde sailkatuko dira. Uneotan, Asador Irigoien sartuko litzateke, hamahiru punturekin. Inork ezin du erlaxatu, ordea: sei talde daude lau puntuan. Bigarren itzulia emozioz bete izango da.

Zortzigarren jardunaldiko emaitzak honakoak izan dira: Insausti 8-2 Viña del Mar; Trumoi 2-4 Buenetxea; Avenida 3-1 Garoa; eta Patricio 3-1 Goiko.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

OHOREZKO ERREGIONALA

Bergara KE - Ostadar SKT
Larunbata. 15:30. Ipintza, Bergaran.

IBERDROLA LIGA

Real Sociedad - Granadilla Sur
Igandea. 11:00. Zubieta, Donostian.

KADETEEN OHOREZKO MAILA

Antiguoko KE - Ostadar SKT
Larunbata. 12:00. Berio, Donostian.

ARETO FUTBOLA

SENIOR 1. MAILA

Eguzki Aldaz H.K. - Idiazabal
Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kiroldegian.

JUBENILAK

Eguzki Balerdi Harategia - Eskoriatza
Larunbata. 09:30. Maialen Chourraut kiroldegian.

Antiguoko KE - Eguzki 2KN

Larunbata. 11:00. La Asuncion eskola.

SASKIBALOA

KADETEEN EUSKAL LIGA

Ostadar SKT - Loiola
Larunbata. 12:00. Maialen Chourraut kiroldegian.

PILOTA

PROFESIONALAK

Artega II eta Urretabizkaia II - Salaberri eta Tolosa
Astelehena. 16:30. Beotibar, Tolosan. Jaialdiko hirugarren partida.

IGERIKETA

EUSKAL HERRIKO NEGUKO TXAPELKETA

Buruntzaldea IKTKo infantil mailako igerilariak parte hartuko dute Euskal Herriko Neguko Txapelketan.
Larunbata eta igandea. Azken Portu kiroldegia, Irunen.

ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

Babyauto Zarautz - Getxo RT
Larunbata. 16:00. Asti, Zarautzen.

EUSKAL LIGA

Babyauto ZRT Beltzak - Iruña RC
Larunbata. 12:00. Asti, Zarautzen.

16 URTEZ AZPIKOAK

Iruña RC - Mutriku/Zarautz/Beltzak
Larunbata. 11:30. UPNA, Iruñean.

ATLETISMOA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Ostadar SKTKo zenbait atletek Euskadiko Txapelketa jokatu dute asteburuan, absolutu mailakoa.
Larunbata eta igandea. Antonio Elorza belodromoa, Donostian.

LASTERKETAK

XIV. SAHARA CROSS. SALEM HACH ENBAREK OROIMENEZKOA

Raul Gomez Margallo lasarteoriatarak hamar kilometroko ibilbidea osatu beharko du. Gorka Gilek, 5,4 kilometrokoa.
Igandea. 11:00. Ormaiztegin.

Diru-laguntza deialdia zabaldu du udaleko kirol zerbitzuak

Lasarte-Oriako Udaleko kirol zerbitzuak jakinarazi du ia 84.000 euro bideratuko dituela aurten diru-laguntzetara. GAO Gipuzkoako Aldizkari ofizialean eman du horren berri. Martxoaren 27a izango da laguntza horiek eskatzeko azken eguna, ostirala. Kopuruak horrela banatuko ditu: 62.000 euro laguntza arruntetara; 12.000 aldizkakoetara; 8.000 emakumeen kirol federatua sustatzera eta 1.800 Jon Tecedor bekara.

Txapelketako hirugarren garaipena erdietsi du Ostadar Boleibolak

Gipuzkoako Txapelketa bikaina jokatzeko ari da Ostadar Boleibola. Taldea aurten eratu eta zenbait jokalaririk diziplina horretan lehenengoz ari badira ere, oso ongi moldatzen ari dira kantxan. Gipuzkoako Txapelketa jokatzeko ari dira orain, eta maila oso ona ematen: asteburuan 3-1 irabazi diote urdin-beltzek Kostkas talde donostiarrari, Maialen Chourraut kiroldegian. Sei norgehiagoka jokatu ditu Asier Acuriola entrenatzailearen taldeak.

Dispertsioa salatzen

Euskal presoek pairatzen duten dispertsioa politikara salatzeko, Lasarte-Oriako ezker abertzaleak ibilbidea antolatu du otsailaren 29rako, larunbatez. Teresategi mendira joango dira, Argi Iturralde eta Iñaki Balerdi herritarren oroitarrira. Bi puntutatik irtengo dira: Okendo plazatik, 10:30ean; ordu laurden beranduago, Zabaletako plazatik. Bueltan, mokadutxo egingo dute Xirimiri elkartearen, 12:30ean.

DISPERSIO RIK EZ!

OTSAILAK 29 LARUNBATA
Argi eta Iñaki Oroitarrira
"Teresategi" ibilbidea.

- * 10:30ean Okendo plazatik.
- * 10:45ean Zabaletako plazatik.
- * 12:30ean mokadutxo Xirimiri.

Argi, Iñaki
moko zakurrarekin

LASARTE-ORIAKO EZKER ABERTZALEA

Bertan behera geratzetik, Zarautzen jokatzera

Eibartik Zarautzera. Gipuzkoarren arteko Ohorezko B mailako derbia bertan behera geratzear egon da, baina tokiz aldatzea adostu dute bi taldeek, partidaren egunean bertan. Zarautzarrek zakuratu dituzte puntuak, talde armaginari 6-36 irabazita

Txintxarri

Zaldibargo zabortegiko krisia dela-eta, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak emandako gomendioak jarraituz, aire librean egin beharreko kirol ekintzak bertan behera geratu ziren asteburuan. AVIA Eibar RT eta Babyauto Zarautz taldeek Eibarren jokatu behar zuten Ohorezko B mailako partida izan zen neurri horrek eragindako neurketetako bat. Partida atzeratu beharrean, bi taldeen prestutasunari esker Astin jokatu zen norgehiagoka. Etxeko taldeak kanpoko talde bezala jokatu behar izan zuen eta onura atera zion zelai aldaketari, 6-36 irabazi zuen.

AVIA Eibar taldea gogoz atera zen zelaira eta zigor-ostiko bati esker aurreratu ziren, baina Zarauzko hiru laurdeneko jokalariek erritmo aldaketak egin eta esku-joko ederra erakutsi zuen entsegua egiteko. Carlos Estrada gazteak hagetarako ostikoa transformatu zuen eta 3-7 jarri zen dortokaren hamabostekoa. Hamalagarren minutuan, Estradak berak aldeko zigor-ostikoa jaurti eta hiru hagen artean sartu zuen beste hiru puntu lortuz.

Ahalegin handiak egin zituzten bi taldeek entsegu marrara gerturatzeko. 24. minutuan, Babyauto Zarautzeko Albert Onelei jokalaria txartel horia erakutsi zioten eta kaleratu egin zuten. Talde armaginak ongi baliatu zuen kopuru-nagusitasuna eta 26. minutuan zigor-ostikoz 6 eta 10ekoa jarri zuen markagailuan. Lehen zatia horrela amaituko zela zirudien arren, atsedendaldirako minutu bat falta zenean, Alex Saleta lasarteoriatarrek entsegua lortu zuen kostakoentzat.

Bigarren zatiko lehen minutuetan erabaki zen partidaren patua, Zarauzko aurrelarien lanari esker. Eibarrek ahaleginak egin zituen, baina gainezka egin zien Babyauto Zarautzek. Jokaldi ederrak ikusi ziren. Aurkari



Eibarko jokalariek ezin izan zuten Babyauto Zarautzen defentsa apuritu. FELIX BEITIA

ugari driblatu ostean, marratik bost metrora plakatu zuten Josu Valenciano. Zarautzarren aurrelari-multzoak ongi baliatu zuen egoera aurrera egiteko eta Saleta herritarrak entsegua egin zuen. Sebastian Sedranek zigor-ostikoa bota eta beste bi puntu gehiago igo ziren Zarauzko taldearen markagailura, 6-29.

Eibarko aurrelariak ez zuten amorerik eman, ordea. Erdialdean jokatzeko saiatzen ziren eta behin

eta berriro dortokaren hamabosteko defentsa aurkitzen zuten ahaleginak zapuzteko prest. 70. minutuan, Corey Simpsomek azken entsegua egin eta Sedranek ez zuen hutsik egin zigor-ostikoa. Babyauto Zarautzek behar-beharrezko puntuak eskuratu zituen.

Aste honetan, Getxo RT ligako liderra izango dute zarautzarrek aurrez aurre etxean. Partida gogorra aurreikusten dute.



Errugbian lehen pausoak ematen

Eskola Kirola egitasmoko gazteboek diziplina berriak deskubritzen dituzte astero-astero. Oraingo honetan errugbian jokatu dute benjaminak, Beltzak RT eskolako kideekin batera. Kirol horren nondik norakoak erakutsi dizkiete: larunbat goiz ederra igaro dute Michelin kirol guneko zelaietan. Alebinak futbolearen eta saskibaloian aritu dira, larunbatean bertan.



Aintzane Sarobe, Antonio Lopez sariko proba bat amaitu berritan. BURUNTZALDEA IKT

Final bat eta marka pertsonal berriak, Bartzelonan

Aintzane Saroberentzat Euskal Herriko txapelketa prestatzeko baliagarria izan da Alejandro Lopez Saria

Txintxarri

Buruntzaldea IKTko Aintzane Sarobe Alejandro Lopez Sarian izan da lehian Bartzelonan, otsailaren 15an eta 16an. Gipuzkoako Selektzioaren izenean bost proba egin ditu gazteak: 50 m. tximeleta, 50 m., 100 m. eta 200 m. libre probak eta 4x100 libreko errelebo proba. Sasoi onean dagoela erakutsi du Buruntzaldea IKTko igerilariak final baterako sailkatu eta bere bi markak pertsonal ondu zituen.

Larunbata goizean 100 m. libreko B finalerako txartela eskuratu zuen, 1.01.05. Ostean, 50 m. tximeleta probakoa marka

hobetu zuen, 31,45ean kronoa geratuz. B finalean, sailkapeneko marka ondu zuen, 1.00,92.

Igandean, berriz, 50 m. eta 200 m. librekoa probetan aritu zen. Lehenengoan, 2.14,37 denboran amaitu zuen proba eta marka pertsonal berria ezarri zuen, baita hamasei urteko taldeko errekor berria ere. Bigarrenetan, bere marka onenetik gertu ibili zen.

Asteburu honetan, Sarobek beste hitzordu garrantzitsu bat du. Buruntzaldea IKTko beste zortzi kideekin batera infantil mailako Euskal Herriko Txapelketan lehiatuko da.



OSTADAR IPAR MARTXA

Elkartasuna eta kirola batuz

Aspanogi elkartearen piraten eskifaiaren parte izan ziren Ostadar Ipar Martxako kideak asteburuan. Gipuzkoako Haur Minbizidunen Elkarteak martxa solidarioa egin zuen Donostian, haurren minbiziaren aurkako eguna ospatuz –hilaren 15ean izan zen, larunbatez–. 600 pertsona baino gehiago animatu ziren Donostiara joatera igandean, otsailaren 16an: Sagueseko hondartzatik Haizearen Orrazira joan ziren.

Errepide zein mendi, herritarrak lasterka

Zapatilak jantzi eta hainbat lasterketatan parte hartu dute lasarteoriarrek asteburu honetan. Gipuzkoan eta Bizkaian lehiatu dira. Emaitzarik onena Irungo 10 kilometrotako proban izan da; Gomez Margallo podiumeko bigarren mailara igo da

Txintxarri

Lasarte-Oriako korrikalariek ongi baliatu zuten igande goiza hainbat probatan parte hartzeko. Gipuzkoa zein Bizkaian errepidean edo mendian kilometro ugari egin zituzten guztien artean.

Irunen errepideko bi probatan lehiatu ziren herritarrak: III. Maratoi erdia eta 10 kilometrotako proba. Distantzia motzeko proban lortu zituzten emaitzarik onenak. Raul Gomez Margallo herritarra bigarren izan zen; Josune Lizeaga Alonso bosgarren izan zen eta Gorka Gil, berriz, seigarren iritsi zen helmugara. Bi ordezkari bakarrik izan ziren 21 kilometrotako proban: Ismael Hernandez, 01.43.05 eta Alejandra Claudia Zarate, 01.56.00.

Jaizkibel mendian barrena lehiatu ziren lasarteoriarrek VII. Lezo-Jaizkibel mendi lasterketan. 14 kilometrotako proba honetan herritarrik azkarrena Lasarte-Oria Trail taldeko Jon Huici izan zen, 01.19.00. Gainerako denborak: Jose Ignacio Elvira, 01.31.00; Igor Sevillano, 01.39.00; Ander Urkizu, 01.32.29; Igor Sevillano, 01.39.25; Miguel Granado, 01.50.40 eta Veronica Gonzalez, 01.59.45.

Bizkaia aldean ere lasterketak izan zituzten herritarrek.



Apuko igoera proban parte hartu zuten Lasarte-Oria Traileko kideak. LASARTE-ORIA TRAIL

Zaramillo eta Ortuella herrietan jokatu ziren Apuko igoera eta master mailako Euskadiko Kros Txapelketa izan ziren lasarteoriarren asteburuko erronka gogorak.

23 kilometrotako ibilbidea eta 1.100 metroko metatutako garaiera du Apuko igoerak. Proba gogor honetan Lasarte-Oria Traileko lau kide lehiatu ziren: Javi Olazagoitia, 02.11.00 denbora eginez; Juan Luis de la Mata, 02.27.00; Joseba Iparraguirre, 02.38.00 eta Angel Carretero, 02.46.00.

Master mailako Euskadiko kros txapelketan, berriz, Mari Carmen Olaso eta Xabier Carcedo herritarrak izan ziren parte hartzen.

Olasok 23.02ko denboran egin zituen ibilbideko 4.800 metroak eta emakumeen sailkapen orokorrean hamazazpigarren postua eskuratu zuen.

Carcedo, aldiz, 35 eta 50 urteko mailako proban lehiatu zen. 5.800 metroko ibilbidea egin zuen herritarrak 23.22ko denboran eta lasterketa 55. postuan amaitu zuen.



Narao Elvira, ezkerreko lehena, 300 m. probako podiumean. OSTADAR SKT ATLETISMOA

Lau domina eta bi marka pertsonal, Gipuzkoako txapelketan

Ostadar SKTko Furundarenak, Elvirak eta Valdiviak ez dute huts egin parte hartutako proba ugarian

Txintxarri

Ostadar SKTko atletek dominen poltsa handitu dute Gazteen mailako Gipuzkoako Txapelketako 2. jardunaldian. Arratsalde polita izan zen Anoetako belodromoan kirol emaitzei dagokienez, bost kirol final jokatu zituzten eta lau domina eskuratu. Atletismo saileko hainbat gaztetxok parte hartu zuten jardunaldiko proba ezberdinetan eta azpimarratzekoak dira Narao Furundarena, Narao Elvirak eta Irati Valdiviak lortutako emaitzak.

Elvirak bi domina eskuratu zituen 16 urtez azpiko mailan: urrezkoa jauzi hirukoitzean, 9,99 metroko markarekin, eta zilarrezkoa, 300 m. proban, 44,33 segundoan geratuz kronometroa. Bi probetan gainera, bere marka pertsonala ondu zuen. Furundarenak, berriz, 20 urtez azpiko mailako txapela jantzi

zuen, 200 m. proban. Marka, 26,01 segundo. Podiumean izan zen Valdivia ere. Brontzezko postua eskuratu zuen 60 m. hesi proban, 10,50.

Inauterietan ere ez dute atsedetik izango Ostadar SKTko atletek. Larunbatean eta igandean Donostiako Antonio Elorza belodromoan jokatu den maila absolutuko Euskadiko txapelketan parte hartuko dute.

Espainiako finalean

Gipuzkoako Txapelketa ez zen herriko atletek zuten hitzordu bakarra izan. Atletico San Sebastian taldeko Eneritz Busto herritarra 23 urtez azpiko Espainiako Txapelketan lehiatu zen. Salamancan jokatu den lehiaketan, 60 m. hesi proban parte hartu zuen herritarrak eta finalera iritsi zen. Seigarren postua eskuratu zuen lasarte-Oriako gazteak.

Alebinak bikain eskolarteko tB mailako lehen fasean

Sarmientok eta Landaberri taldeak bigarren postua eskuratu dute; infantil mailan, berriz, zazpigarren izan dira

Txintxarri

Donostiako Karmelo Balda kiroldegia Eskolarteko B mailako gimnastez bete zen, otsailaren 16an, igandea. Bertan Lasarte-Oriako Kirol Elkarteko bi gimnasta eta bi talde izan ziren lehiaren alebin

eta infantil mailan. Urteko lehen txapelketa zen arren, ongi erantzun zioten erronkari gimnastek eta bigarren postu pare bat eskuratu zituzten alebin mailan.

Maila horretan, esku hutsik egin zuen lan Maitane Sarmiento

gazteak; esku hutsik eta pilotarekin, berriz, Landaberri taldeak.

Infantil mailan, aldiz, bi zazpigarren postuarekin konformatu behar izan ziren LOKEko gimnastak. Aitana Molanok bakarka eta Oriarte taldeak uztaiarekin egin zuten lan.

Otsailean ez dute hitzordu garrantzitsu gehiagorik izango. Martxoan ordea, Udaberri txapelketako lehen faseari eta eskolarteko A eta B mailako bigarren faseari aurre egin beharko diete LOKEko gimnastek.



Alebin mailako taldea esku hutsik eta pilotekin egin zuen lan. LOKE GIMNASTIKA

KOMIKIA



ZORION AGURRAK



Bea
Zorionak Bea!!!
Oso ondo pasa zure urtebetetzean. Besarkada handi bat zure lagunen partetik.




Aimar eta Mertxe
Zorionak bikote! Oso ondo pasa zuen egunean. Muxu bana familiaren partetik.




Udane
Zorionak Udane!!
Marrubizko bi muxu potolo, Unax, ama, aita eta familiaren partetik.

EGURALDIA LASARTE-ORIAN


Ostirala, 21




Larunbata, 22




Igandea, 23




Astelehena, 24




Asteartea, 25



Asteazkena, 26



Osteguna, 27



JAIOTAKOAK

Alba Blanco Monroy. Otsailaren 13an.
Zoe Nicole Salgado Paredes. Otsailaren 10ean.

HILDAKOAK

Manuel Muñoa Rekondo. Otsailaren 18an.
Andrea Estefania Elizalde Sanzberro. Otsailaren 14an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 21	LASA	EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
Larunbata, 22	GIL	DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
Igandea, 23	GIL	ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
Astelehena, 24	URBISTONDO	DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
Asteartea, 25	ACHA-ORBEA	LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
Asteazkena, 26	GIL	GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
Osteguna, 27	GANDARIAS-URIBE	URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
		GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Urrutia-Martin: Etxeberri auzoa 1 (Florida auzoa), Hernani/ 943 55 77 38

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.
Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

OHARRAK

Posta bidezko botoa

Apirilaren 5eko Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetarako postaz emateko asmoa duten herritarrek, martxoaren 26ra arte dute eskaera egiteko. Eskaera edozein Posta bulegotan egin ahalko da.

Posta zerbitzuak aditzera eman duenez, eskari hau hautesle bakoitzak egin behar du. Eskabidea egiteko unean, interesdunek beren nortasuna egiaztatu behar dute.

Correos-ek Hautesle Erroldaren Bulegoko Probintzia Ordezkaritzetan entregatuko ditu jasotako eskabideak, eta horiek, martxoaren 16tik 29ra bitartean, posta bidezko botoa eman ahal izateko beharrezko dokumentazioa bidaliko diete eskatzaileei.

Tramite horiek errezteko alderdi politikoei haien laguntza eskaintzen diete herritarrei. PSE-EEko egoitzara (Ganbo 1) astelehenetik ostiralera goizez 10:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 17:00etatik 20:00etara hurbildu daitezke herritarrek edo 943 372 869 zenbakira deitu dezakete.

Algarvera eta Kadizera bidaiak

Biyak Bat erretiratuen elkarteak bidaiak antolatu du Algarvera (Portugal) eta Cadizera maiatzaren 28tik ekainaren 5era. Bidaiak 700 bat euroko kostua du bazkideentzat eta bazkide ez direnek 775 euro ordaindu beharko dituzte gutxi gorabehera.

Bidaian interesatuak dauden herritarrek Biyak Bat elkarteko bulegotik pasa behar dute 10:00etatik 12:30era. Plaza erretserba egiteko 250 euro ordaindu behar dira.

'Oporrak bakean', familia bila

Lasarte-Oriako Udalak *Oporrak Bakean* proiektu solidarioan parte hartzeko deia egin du. Zortzi familia behar dira, udan oporrak pasatzera Lasarte-Oriara etortzen diren zortzi eta hamabi urte bitarteko haur sahararrak hartzeko.

Interesatuak gizarte zerbitzuekin jarri behar dute harremanetan. 650 488 108 telefonora deitu dezakete, edo, bestela, gizartez@lasarte-oria.org helbide elektronikora idatzi.

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTERI AEK: 607 625 233

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINZTA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943 37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943 37 14 48

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

SALDU
Euskotren ondoko garajea marra salgai. Harremanetarako zenbakia, 687 271 288.

ERRENTAN EMAN
Udarako hilabeteetarako etxea alokatzen da, Punta Umbrian, Huelvan. Bi igerileku eta padel pista ditu. Garajea barne. Harremanetarako zenbakia, 943 376 115.

Urbarte auzoan bi garaje marra alokatzen ditut. Harremanetarako zenbakia, 943 376 115.

LANA

ESKAINITZA
Jatetxe eta proiektu gastronomiko berrirako zerbitzariak eta sukaldariak behar dira. Interesatuak CVa bidali dezakete hurrengo helbide elektronikora: info@casahumada.com.

ESKARIA
Esperientzia duen pertsona euskalduna

eskaintzen da haurrak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Dendari edo garbitzaile bezala ere lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 677 356 413.

Pertsona eskaintzen da garbiketa lanak eta ume edo pertsona adinduen zaintza lanak egiteko. Harremanetarako zenbakia: 604 341 893.

Pertsona eskaintzen da edozein lanetarako: baserrian lan egin, pertsona adinduak zaindu edo kristalak garbitu. Harremanetarako zenbakia: 604 341 893.

Pertsona eskaintzen da helduak zaindu edo garbiketa lanak egiteko. Externa, orduka edo gauean lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia, 634 278 198.

SALEROSKETAK

SALDU
Bigarren eskuko Silver Cross Surf kapazu + paseo aulkia + Maxicosia. Arina, eroso eta erraz erabiltzekoa. Oso konpaktua. Paseo poltsa opari. Dena 400 euro. 646 824 466.



NABARMENDU ZURE EDUKIA

Iragarki nabarmenduak soilik kobratuko dira, azoka txikiko iragarkiak doan izango dira


TAMAINA BERRIA

Modulo txikia.
12 €
(BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus

TAMAINA BERRIA

Modulo handia. 20 € (BEZ barne)
publizitatea@ttakun.eus
646.824466

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Administraria
Nerea Garziarena.

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Inigo Gonzalez,
Maddi Zaldúa eta
Maitane Aldanondo.

Publizitatea
Irati Zatarain.

Laguntzaileak
Gorka Lasa, Asier Odriozola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Maider Galardi, Mikel Yarza,
Nerea Segura, Lierni Rekondo eta
Aizpea Amas.

Banatzaileak
Ioar Gainza, Egoitz Epelde,
Erlantz Ezeiza, Inigo Garcia eta
Jose Lanchas.

Informatika zerbitzuak
IZT Informatika.

PUBLIZITATEA

Geltoki kalea 4 (behea)
Tel.: 943 37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.000 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.



LASARTE-ORIA Inauteriak. Eguneroko eginkizunak alde batera utzi eta denboraren makinari esker, Lasarte-Oriako iraganera edo etorkizunera egingo du bidaia asteburu honetan. Adin guztietarako ekimenak izango dira: haurren eta gazteentzako ekimenak, konpartsen eguna eta pertsona adinduentzako jaiak. Guztietan moztarrot deigarrienak eramango du saria. Lasarte-Oria, ostiraletik igandera.

OSTIRALA 21

LASARTE-ORIA Erakusketa

Donostiako CIMASUB 2019 lehiaketako argazki onenen erakusketa ikusgai izango da, otsailaren 27ra arte. Mundu osoan ateratako 23 lanez gozatu daiteke. Horien artean, sari nagusiak eskuratu zituzten irudiak daude. Manuel Lekuona kultur etxea, 17:00etatik 21:00etara.

ASTELEHENA 24

LASARTE-ORIA CIMASUB 2020

CIMASUB 2020 jardunaldiak amaiara emateko CIMASUB jaialdiko argazki lehiaketako irudi hobereenen diaporama ikusi ahalgo da. Jaialdian saritutako sei lan ere eskainiko dituzte:

- *Caila*, Isaias Cruz Irujo.
- *Bidasoa urdin odola*, Mark Iriarte Iparrea.
- *La Aventura de Vivir*, Juan Raya.
- *Creatures*, Vicente Leal Juan.
- *One Breath Around the World*, Guillaume Nery.
- *Un Paso de Gigante*, Daniel Aldaya.

Eta Francisco Pizarro sari berezia jaso zuen Rafa Herrero Massieu errealizadore eta itsaspeko kamerari buruzko laburmetraia ere izango da.

Manuel Lekuona kultur etxea, 19:00etatik 20:30era.

ASTEARTEA 25

LASARTE-ORIA Erakusketa

Zorione Mendez, *Marrak*-en erakusketa, berriro ere, Lasarte-Oriako da. Aurpegiaren eta gorputzen grabatu eta marrazkiez osatuta dago erakusketa. Marrak dira nagusi irudietan. Martxoaren 1a arte ikusgai.

Jalgi Kafe Antzokia, egun osoan zehar.

OSTEGUNA 27

LASARTE-ORIA Mobilizazioa

Zubietako erraustegiaren aurka protesta egiteko gazte mobilizazioa antolatuko du Ernai gazte Antolakundeak. Okendo plaza, 19:00etan.

LASARTE-ORIA Elkarretaratzea

Duela 44 urte SEAD Saharar Errepublikako Arabiar Demokratikoa osatu zen egunean *Maroko Sahararik at. Independentzia Sahararentzat* lelopean elkarretaratzea

OSTIRALA 21

LASARTE-ORIA Inauteriak

Ilkastetxeetako haurrek Inauteriak ospatuko dituzte:

15:15ean, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko ikasleek denboraren makinari atzera egingo dute, Sasoeta-Zumaburu ikastetxea, Sasoeta eraikina.

15:15ean, Landaberri ikastolako handiak Inauteriak ospatuko dituzte, Landaberri ikastola, Zubieta eraikina.

15:30ean, Landaberri ikastolako txikiek Euskal Inauteriak ikuskizuna eskainiko dute, Landaberri ikastola, Garaikoetxea eraikina.

Lasarte-Oria, 15:15etik aurrera.

LASARTE-ORIA Inahaldunak

2 eta 8 urte arteko haur eta gazteentzako jaiak antolatuko du Ttakun Kultur elkarteak:

17:30ean, moztarrot lehiaketa.

17:50ean, lehiaketako sari banaketa.

18:00etan, disko haur festa.

Txikien gozamenerako sorpresa gozosa eta photocalla izango dira.

Antonio Mercero plazako karpa, 17:30etik aurrera.

LASARTE-ORIA Inahaldunak

9 eta 16 urte arteko gazteentzako jaiak antolatuko du Ttakun Kultur elkarteak:

18:00etan, moztarrot lehiaketa.

Ostean, lehiaketako sari banaketa, gazte kontzertua eta disko festa.

Merienda eta photocalla izango dituzte. Gaztelekua, 18:00etatik aurrera.

LARUNBATA 22

LASARTE-ORIA Inauteriak

Lasarte-Oriako kaleak moztarrot, kolorez eta musikaz beteko dira Inauteriak ospatzeko:

12:00etan, Mikel Bermejo eta Erik Arzallusek ekitaldiari hasiera emango diote, Okendo plaza.

12:30ean, konpartsen aurkezpena, Okendo plaza.

13:15ean, bakarkako moztarrot lehiaketa, Okendo plaza.

14:00etan, konpartsen bazkaria, Antonio Mercero plazako karpa.

Oainbxe in deu barangak girotua. 16:00etan, Superbingoa, Antonio Mercero plazako karpa.

17:00etatik 19:00etara, konpartsen desfilea, Lasarte-Oriako kaleak.

19:30ean, konpartsen lehiaketa, Okendo plaza.

20:00etan, parte-hartzaileentzat txokolatada, Okendo plaza.

23:00etatik 03:00etara, disko jaiak, Antonio Mercero plazako karpa.

Lasarte-Oria, egun osoa.

IGANDEA 23

LASARTE-ORIA Lehiaketa

Biyak Bat elkarteak bere bazkideei zuzendutako moztarrot lehiaketa antolatuko du. Musika ere izango da.

Biyak Bat elkartea, 17:00etatik 20:30era.

ZINEMA

ANDOAIN

Larunbata: 15:45, 17:55, 20:05. Igandea: 15:45, 17:55, 20:05.

BASTERO

Jojo Rabbit
Larunbata: 19:30, 22:00. Igandea: 19:30. Astelehena: 19:30, 22:00.

USURBIL

URBIL

Manhattan sin salida

Ostirala: 15:45, 18:00, 20:40, 22:50, 01:00. Larunbata: 15:45, 18:00, 20:40, 22:50, 01:00. Igandea: 15:45, 18:00, 20:40, 22:50.

La llamada de lo salvaje

Ostirala: 15:45, 17:55, 20:05.

Parásitos

Ostirala: 16:00, 18:45, 21:30, 00:15. Larunbata: 16:00, 18:45, 21:30, 00:15. Igandea: 16:00, 18:45, 21:30.

Fantasy Island

Ostirala: 20:10, 22:30, 00:50. Larunbata: 20:10, 22:30, 00:50. Igandea: 20:10, 22:30.

Hasta que la boda nos separe

Ostirala: 15:50, 18:15, 20:15, 22:35, 01:00. Larunbata: 15:50, 18:15, 20:15, 22:35, 01:00.

Igandea: 15:50, 18:15, 20:15, 22:35.

Sonic: La película

Ostirala: 15:55, 17:00, 18:05, 19:20. Larunbata: 15:55, 17:00, 18:05, 19:20. Igandea: 15:55, 17:00, 18:05, 19:20.

Aves de presa (y la fantabulosa emancipación de Harley Quinn)

Ostirala: 20:20, 22:40, 01:00. Larunbata: 20:20, 22:40, 01:00. Igandea: 20:20, 22:40.

Adú

Ostirala: 16:30, 19:10, 21:50, 00:20.

Larunbata: 16:30, 19:10, 21:50, 00:20.

Las aventuras del Doctor Dolittle

Ostirala: 15:45, 18:10. Larunbata: 15:45, 18:10. Igandea: 15:45, 18:10.

Bad Boys for Life

Ostirala: 22:15, 00:50. Larunbata: 22:15, 00:50. Igandea: 22:15.

1917

Ostirala: 21:35, 00:10. Larunbata: 21:35, 00:10. Igandea: 21:35.

LASARTE-ORIA Ikuskizuna

Errimak bi oinetan ikuskizuna eskainiko du Haatik dantza konpainiak. Sarea XVI. Dantza Zirkuituko ikuskizuna da. Sarrera, 5,50 euro. M. Lekuona kultur etxea, 20:00etan.

DONOSTIA Mobilizazioa

Osasuna, ekonomia eta klimagatik, ez erre etorkizuna! manifestazioa egingo da. LarrEKO mahaia deitutako mobilizazioa. Easo plaza, 17:00etan.

Denborak atzera edo aurrera, Inauteri festan

Denboraren makina gaitzat hartuta, askotariko mozorroak jantzita irtengo dira lasarteoriarrak kalera asteburuan. Ttakun Kultur Elkartek ostiralerako antolatutako festa eta larunbatekoarekin izango dute aitzakia bat baino gehiago mozorro festaz gozatzeko

Txintxarri

Euskal Inauteriak amaituta, hastear dira Inauteriak herrian. Ostiralean eta larunbatean, aukera bat baino gehiago izango dute adin guztietako herritarrek mozorroak jantzi eta kalera ateratzeko. Atzoko Udal Musika Eskolako kontzertu bufoak ireki du aurtengo Inauterietako egitaraua. Mozorroak jantzita eta instrumentuak eskuetan irten dira kultur etxeko oholtzara, eta giro alaiko emanaldia eskaini zuten. Iluntzeko 19:00etan hasi zen hitzordua.

Gaur, berriz, herriko gaztetxoak izango dira protagonistak. 15:15ean, Inauteri festa egingo dute ikastetxeetan lehenik, eta arratsaldean, Ttakun Kultur Elkartek antolatutako ekitaldietan parte hartzeko aukera izango dute. 17:30ean ekingo diote mozorro lehiaketari, 20 minutuz. Ondoren, 17:50ean lehiaketako garaileen artean sari banaketa egingo dute, eta 18:00etan disko haur festa izango da Mercero plazako karpan. Gozokiak jateko eta argazkiak ateratzeko aukera ere izango dutela iragarri dute antolatzaileek, izan ere, Candybar-a eta photocall-a jarriko baitituzte. 2 eta 8 urte arteko gaztetxoei zuzendutako

ekintzak izango dira horiek, baina 9 eta 16 urte artekoentzat ere antolatu du kultur elkarteak ekintza bat baino gehiago. 18:00etan mozorro lehiaketa abiatuko dute, Inauteritako jantzi onenen artean sari banaketa ere egingo dute. Horren ostean, gazte kontzertua eta disko festa izango dira *Photocall*arekin eta meriendarekin batera. Gaztelekuan izango da adin tarte horri zuzendutako jaialdia.

Biharko Inauteri festa

Eguerdian lehertuko da Inauteria, Lasarte-Orian. 12:00etan, Mikel Bermejo eta Erik Arzallus arduratuko dira parte-hartzaileak giotzeaz. Ordu erdi beranduago, 12:30ean, konpartsa parte-hartzaileen aurkezpena egingo da, Okendo plazan. Eta hori amaituta, 13:15ean, bakarkako mozorro lehiaketari ekingo diote. Arratsaldeko desfilearako indarrak hartzeko, bazkaria egingo dute konpartsek Mercero plazako karpan. Bakoitzak bere bazkaria eramatea ezinbestekoa da, eta Oaintxe in deul txarangak giotuko du bazkalordua. Superbingoa izango da gero, 16:00etan.

17:00etan desfilean abiatuko dira konpartsa guztiak. Jalgune,

Zabaletako Lagunak, Zentro Zibikoa, Intzak Parrandan eta Sasoeta Sasoian izango dira aurtengo parte-hartzaileak. Herriko kaleetan barrena ibiliko dira, eta Okendon amaituko dute, 20:00ak aldera. Jarraian, karrozen lehiaketa egingo dute, eta irabazlea aukeratu dute.

20:00etatik aurrera, txokolatea banatuko zaie konpartsetako parte-hartzaileei.

Festari jarraipena emateko, disko jaia izango da Mercero plazako karpan, goizaldeko 03:00ak arte, eta helduenek ere goizaldera arte gozatu ahalko dute jaiaz.



Ttakun Kultur Elkartek Inauteri festa antolatu du ostiralerako. TXINTXARRI



Ikastetxetako ikasleek gaur arratsaldean ospatuko dute Inauteria. TXINTXARRI



Jalgunek, Zabaletako lagunak, Intzak Parrandak, Sasoeta Sasoianek eta Zentro Zibikoak desfileatuko dute aurten. TXINTXARRI



ARROPA-GARBIGAILUETAN EMAITZA EZIN HOBEAK, GUTXIENKO KONTSUMOAREKIN

Miele

ARROPA-GARBIGAILUA

- TwinDos WIFI-arekin, merkatuko detergente dosifikazio sistema hobereana.
- Telefono mugikorretik kontrolatzeko aukera.



BOSCH

ARROPA-GARBIGAILUA

- Detergente eta leungarri dosifikazio sistema automatikoarekin.
- Energiaren eta uraren gutxieneko kontsumoa



600 857 586
www.electricidadarregui.com
tienda.electricidadarregui.com
(on-line denda)
Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA
Tel. 943 36 10 80